

Urrutiko sarbidea: urrundik kontrolatu daitezkeen ordenagailuak

Zenbait programak aukera ematen dute ordenagailu batetik bestera sartzeko, eta horrek hainbat aplikazio erabilgarri eta irudimentsu jarri ditu abian



Interneten eskutik etorri da ordenagailuetara urrutitik sartu ahal izatea. Terminalak elkarrizketan lotzen hasi zirenetik, informatikariak buru-belarri aritu dira lanean, ordenagailu batetik beste batera sartzeko aukera emango duten programak sortu nahian, nahiz eta ordenagailua aski urrun egon. Aplikazio erosoak dira oso, eta jende askoren begikoak; lehen hacker haiek, adibidez, programa horiek erabiltzen zituzten beren ekintza gogoangarriak egiteko. Arriskuak arrisku, ordea, merezi du sistema hau erabiltzea, abantaila ugari ditu eta.

Beren kabuz mugitzen diren saguak

Saguaren gezia pantailan hara eta hona ibil daiteke egun, ordenagailu aurrean inor eseri ez bada ere. Holakoak gero eta gehiago ikusten dira bulegoetan, eta inor gutxi harritzen da. Segur aski, informatikariren bat ariko da laguntza teknikorako gelan, gorabeheraren bat konpontzen. Urrutitik sartzeko programa erabiltzen du horretarako, eta enpresako barne sarearen bidez (Intranet), berak nahi duen ordenagailura konekta daiteke. Informatikaria bere ordenagailutik aritzen da (ordenagailu bezeroa deitzen diote), eta enpresako terminal guztietara konektatua egoten da (urrutikoak deitzen

zaie ordenagailu horiei). Ataka izeneko kanalak erabiliz, komunikazio selektiboa sortzen du ordenagailu bakoitzarekin, eta, horri esker, gainerako guztien idazmahaiak ikus ditzake bere ordenagailuan (bezeroa), eta urrutitik jardun.

Baina ez da informatikariren kontua bakarrik. Bidaiatu beharra izaten duen edozein erabiltzaile bali daiteke teknologia honetaz: etxeko ordenagailuan daukan informazio guztia eramaten ibili beharrenean, programa hauei esker, inolako arazorik gabe lortuko du beste ordenagailu batetik ikustea etxeko disko gogorrean daukan artxihoak. Gauza askotarako erabil daitezke urrutiko sarbidea eskaintzen

duten aplikazio hauek, eta buruari eraginda, gutxien uste denerako ere bai.

Diskotekak, ikasgelak eta bulegoak... guztiak urruti eta bertan

Programa gehienek aukera ematen dute urrutiko ordenagailuan dauden artxiho multimediak ikusi eta entzuteko, baldin eta banda zabalera on samarra badugu (ADSL konezio gehienek balio dute). Lagun baten etxean egonda ere, beraz, etxeko ordenagailuaren disko gogorrean gordeta dugun film bat ikus dezakegu lagunaren ordenagailuan. Nahikoa da bi ordenagailuek urrutiko sarbidea ematen duen programa instalatuta edukitzea (programa berbera izan behar du).

Urrutiko sarbidea ematen duten programei esker, elkarrizkonektatuta dauden ordenagailu-sareak sor daitezke, eta hortik aurrera, erabilera asko eta askotarikoak eman dakizkioke. Batzuek jolaserako erabiliko dute, eta beste batzuek lanerako. Ameriketako Estatu Batuetan, adibidez, hezkuntza arloan erabiltzen hasi dira: irakaslea ikasleen ordenagailuetan sartzen da haiei jarraitpena egiteko, bideoak ikusarazten dizkie eta, oro har, eskolak emanez aritzen zaie, beti urrutitik ('Netop Schools' izena eman diete eskola horiei).

Asteburuetan bulegoko lana aurreratu nahi dutenei ere ederki etor dakieke aplikazio

hau. Etxean eseri, ordenagailua piztu eta bulegoko ordenagailuaren idazmahaiak ikus dezakete eta lan egin, hantxe baleude bezala. Hori egin aurretik, ordea, enpresako informatikariarekin hitz egin beharko dute, enpresetako ordenagailuek itxita edukitzen baitituzte sarri askotan sarbide-atakak, komeni ez den inor sar ez dadin.

Era berean, enpresatik etxeko ordenagailura sartu nahi dutenei ere gerta dakieke sarbidea itxita topatzea. Enpresa askok, izen ere, mugatu egiten diete beren ordenagailuei Internetarako sarbidea, langileek ez dezaten erabili programa debekaturik (Emule, adibidez).

Zer programa eta baldintza eskatzen ditu urrutiko sarbideak?

Sistema eragile hauetako bat duen oro sar daiteke urrutitik beste ordenagailu batera: Windows XP edo Vista, Mac OS X edo azken urteetako edozein Linux. Windows-ek, adibidez, sistema eragilearekin berarekin ematen du sarbidea beste ordenagailuetara. Horretarako, urruti daukagun ordenagailuak aktibatuta eduki behar du aukera hau, 'urrutitik sartzeko utzi', eta identifikazio-izen bat ere eduki behar du. Eta, jakina, bi ordenagailuek Internetara konektatuta egon behar dute, bai bezeroak eta bai urrutikoak. Gainerako sistema eragileek ere antzera funtzionatzen dute.

Merkatuak, hala ere, eskaintzen ditu bestelako aukerak, Windows-ek ematen dituenak baino hobek, gainera. Interneten aurki daitezke guzti-guztiak. 'Remote Administrator' eta 'Real VCN' dira ospetsuenak, baina horiek erabiltzeko, urrutiko konexioan parte hartuko duten ordenagailu guztietan instalatu behar dira. 'LogMeln' izenekoak ere hor dago, eta horrekin, gainera, aski da sartu nahi dugun ordenagailuan soilik instalatzea, ordenagailu bezeroaren nabigatzaileak erabiltzen baita: urrutiko ordenagailuaren idazmahaiak ikusiko dugu han, eta oso erraz erabili ahal izango dugu. Hala funtzionatzeak baditu abantailak noski: batetik, Internetara konektatuta dagoen edozein ordenagailutatik sar gaitezke, ezer instalatzen ibili beharrik gabe, eta, bestetik, sistema eragile desberdinak dituzten ordenagailuak modu gardenean konektatzeko aukera ematen du: Linux-etik Mac OSX-era, Windows-etik Linux-era...

Oso erraza da, www.logmein.com-era sartu eta hango argibideei jarraitzea bezain erraza. ★



URRUTIKO "BESTE" SARBIDEAK

Urrutiko sarbide guztiek ez dituzte ematen aukera eta abantaila berberak, eta hori kontuan hartu behar da.

Programa espioiek eta software kaltegarria dutenek ere urrutiko sarbidea erabiltzen dute; aplikazio txikiak izaten dira, eta erabiltzailearen ordenagailuan sartu eta komunikazio kanalak irekitzen dituzte, gero gaizkile informatikoei nahi adina gaiztakeria eta bidegabekeria egin ahal izan dezaten.

Urrutitik erabiltzen dute internauten ordenagailua, eta zabor iragarkiak bidaltzen dituzte, edo erabiltzailearen kode zenbakiak harrapatzen saiatzen dira, bankukoak, adibidez. Itxura denez, hiru ordenagailu pertsonaletatik bat programa horiekin kutsatua dago.

Horregatik da garrantzitsua birusen **aurkako programak** eta **babes programak** beti martxan edukitzea Interneten ari garenean. Gainera, aldi behin ordenagailua aztertzea komeni da, eta espioiak harrapatzeko programak erabiltzea (**SpyBot** eta **AdAware**, adibidez), ordenagailura sartzen den guztia zaintzen baitute eta software kaltegarria antzematen.